

11. XIX. mendeko pentsamenduaren krisia eta mende amaierako kultura

Europar, eta orohar mendebaldeko kulturaren, XIX. mendean gertatu ziren aldaketa sakonak ulertzeko ezinbestekoa dugu Antzinako erregimenaren erorketa (Ancien regime) ulertzea eta ondo kokatzea. Horretarako gertakari garrantzitsuenei gainbegirada emango diegu.

1. Antzinako erregimena

Pariseko Bastilla, erregearen gotorlekua eta gartzela zena, Antzinako Erregimenaren ikurra zen eta herriak hartzeak Erregimen Berria ezartzea (1789) ekarri zuen iraultzaren hasiera izan zen. Bastillaren hondakinak komertziorako erabili ziren, berrehun urte geroago Berlingo Harresiarekin egin zen bezala.

"Antzinako Erregimena" iraultzaile frantziarrek, batez ere arbuizatzeko, 1789ko Frantziako Iraultzaren aurreko gobernuaz izendatzeko erabili zuten hitza da. Honen kontrako hitza Erregimen Berria, edo Aro Modernoa izan zen.

Hedapena

Antzinako Erregimenaren kontzeptua Erdi Aroaren amaieratik nazio estatu bezala definitu ohi diren Mendebaldeko Europako erresumak izendatzeko erabiltzen da. Kontzeptua, lehenagoko arotako entitate politikoak, Europar izan arren, ezin dira izendapen honen barruan sartu, Erdi Aroko forma politikoak feudalak zirelako, neurri baten, erregeen Inperioa edo Aita Santuaren menpean zeudelako; beste alde batetik, jaiotzen ari zen kapitalismoa oraindik bazterreko zer edo zer baino ez zen, eta gizarte estamentalak oraindik ez zituen bere azken mekanismo eta instituzioak sortu. Antzinako Erregimenak iraun zuen denbora, Aro Moderno bezala ezagutzen denarekin bat dator: XV. mendetik XVIII. mendera arte. Dena dela, historialari gehienek Antzinako Erregimenaren ezaugarrien mantentzea XIX. mendearen amaieratik Lehen Mundu Gerra arte luzatzen dute.



Ezaugarriak

*Ekonomia eta demografia

Lurraren jabetza, ekoizpen faktore nagusia, nobleziarena zen, "esku hilak" kleroarenak eta lur komunalak udaletxeenak. Jabetza mota honek modu askean ezin probestu izana eragiten zuen, eta beraz, lurren merkatu libre bat existitzea erabat ezinezkoa zen.

Hirien tamainaren hazkuntzak (gutxi batzuk bakarrik: Paris, Londres, Sevilla, Madril, Erroma, Istanbul eta abarrek dute 100.000 pertsona baino gehiagoko biztanleria) feudalismotik kapitalismorako trantsizioan modu erabakiorrean lagundu zuen. Baina garai aurreindustrialak hor jarraitzen zuen, eta biztanleriaren gehiengoaren lanbidea nekazaritza eta abeltzaintza zen, errendimendu eta ekoizpen oso urrikoak, euren teknikek oso motel eboluzionatzen zutelarik.

Antzinako Erregimen demografiko bati buruz hitzegitean, honako ezaugarri hauek aipatzen dira: jaiotza eta heriotza tasa altuak, hazkuntza natural urria, hondamendi heriotzaren urteekin orekatzen zena, ugalkortasun handia (nekazal esplotazioak zituzten familiek grinez eskatzen zutena) zelibatuarekin orekatzen zena (ezkontzak, oso adin txikietan, batzuetan atzeratu egiten zena, ez zion biztanleria osoari eragiten) eta bizi itxaropen oso baxua.

Industria oztopatua zegoen gehiegizko zerga eta araudiekin. Barne aduanak zeuden, pisuak eta neurriak aldatu egiten ziren lurraldeen arabera, gai batzuk, bereziki laboreak (biztanleria gehienaren elikadura kaxkarraren benetako oinarria) babeste zorrotz politika gogor baten mende zeuden, eta, beraz, ekoizten zen toki berean kontsumitu behar ziren, edo tasen mende zeuden, beste batzuentzat aduana eskubideak erabiltzen ziren (kanpokoak ezezik, barrukoak ere bai), kasu askotan, elkartruketa ezeztatzen zutenak.

Ez da existitzen, beraz, askatasun ekonomikorik, ezta konpetentziarik ere, guztia kontrolatua baitzegoen, gremioengatik, korporazioengatik edo Estatua berarengatik, batzuetan, agente ekonomiko bezala funtzionatzen zuena: errege eskulangintzak, armagintzarenak bezala edo apaindura ondasunena eta erregaliak edo gatz, tabako. Merkantilismoa, protekzionismo deritzon politika ekonomiko nagusia

justifikatzen duen doktrina ekonomikoa da. Librekanbioa edo liberalismo ekonomikoa XVIII. mendean agertzen da proposamen alternatibo gisa, sistemaren aldaketaren egoera batean bidea egiten ari dena.

*Gizartea

Antzinako Erregimenaren beste ezaugarri nagusietako bat, jaiotzatik erabakitako hiru estamentutan banatutako gizartearen antolaketa da: bi estamentu pribilegiatu: noblezia (laikoa) eta kleroa (bere goiko zatian, familia nobleek izandako bigarren seme-alabak zeudena), gainontzeko pertsonen gainetik zeuden. Hirugarren Estatu edo jende arrunta: nekazariak (biztanleriaren gehiengoa) eta burgesak, merkatariak eta artisauak. Pertsonen eskubideak ez ziren berdinak guztientzat, legez, nobleek eta elizakoek, herritarrek ez zituzten pribilegio batzuk zituzten. Hala ere, estamentuak itxiak ziren arren, ez ziren hermetikoak, eta posible zen hirugarren estatutik estamentu pribilegiatura igarotzea, noblez edo kleroa sartuz.

Ordena erlijiosoen desklaustratzeak, klero sekularren desamortizazioa eta zelibatuaren amaiera ekarri zuena, Erreforma Protestantean izan zuen papera, izan zen Antzinako Erregimenetik aldentzea eragin zuena desklaustratzea aukeratu zuten nazioei. Europa hegomendebaldeko nazio katolikoak dira (eta Polonia), Kontraerreformaren garaipenaren lekuko, gizarteari dagokionez, estamentuez osatutako gizartearen garaipena esan nahi duena: kleroaren antolaketa piramidala, klero erregularren hiru botuak, klero sekularren zelibatua, instituzio erlijiosoen presentzia ekonomikoaren justifikazioa eta bere presentzia bizitza publiko zein pribatuko arlo guztietan.

Estatusa eta prestigioa identifikatzen ziren aberastasuna baino gizarte markagailu esanguratsuago bezala. Perspektiba honen arabera, gizartea modu bertikalean banatzen zen gizarte mailen arabera eta ez modu horizontalean klaseen arabera.

Bereziki, Antzinako Erregimeneko gizarteko eliteak, klase pribilegiatu bezala uler daitezke, bere interes ekonomikoetan identifikaturiko klero eta noblezia batetaz osatua, eta elkarreraginak, lur, elizako kargu, burokrazia, armada eta Gortearen lotura familiarrengatik, interpretazio materialistaren arabera, edo ordenen talde ez homogeen bat bezala.

*Sistema politikoa

Nobleziak Erdi Aroan zuen botere politikoa metatzen duten monarkia autoritarioek, euren boterea, armada bezalako tresnetan oinarritzen dute, erregeak kontratatutako mertzenarioek osatua zegoena, gerra gertatuz gero, zibilak derrigorrean errekrutatzen ziren inperioa defendatzeko. Nobleziak kontrolatutako erdi aroko osteen amaierak, estamentu honi funtzio berri bat ematen dio, ez botere militarrena, baizik eta botere politikoa eta soziala, eta gortean erregearen ondoan duen posizioak, bere botere politikoa neurria emango dio.

Erregeak bere eskuetan ditu botere guztiak (betearazlea, legegilea eta judiziala) praktikan, burokrazia mordoa erabili behar duen arren, eta ordezkari batzuk izendatzen dituen arren, hauei, bere izenean gobernu ematen diena, idazkariak, ministroak edo.

XVII. mendetik aurrera, Estatuaren subirautza duen monarkia absolutu baten presentziaz hitz egin daiteke. Monarkia hau, boterearen uestezko jatorri jainkotiarrengatik justifikatzen zen, norengandik bitartekaririk gabe jasotzen zuen (nazioa edo herria adibidez). Erregea, Jainkoaren aurrean baino ez da justifikatu behar.

Erregeak gerra adierazi eta bakea egiten zuen, armaden buru zen, gastuak zehaztu eta zergak ezartzen zituen; funtzionarioak izendatu eta euren kargutik kentzen zituen eta administrazio osoa zuzentzen zuen. Probintziak, intendenteek administratzen zituzten, edozer eta edonola egiteko ahalmenarekin.

Erregeak legeak egiten zituen, bere borondate pertsonalaren adierazpenak zirenak "erresumaren funtzesko ohiturak" kontutan izan behar zituen arren, ohitura horiek kontraesankorrak ziren, eta ez oso argiak, eta zaila izango zen argi definitzea. Bere mendekoez ez zuten, berez, Estatuaren aurrean eska edo erabil zezaketen eskubiderik.

Gainera, erregeak zuzentzen zuen justizia banaketa, hau, bere izenean banatzen baitzen, eta berak izendatutako funtzionarioek. Tortura judiziala erabiltzen zen akusatuen aitortzea lortzeko, hauek, isilpeka epaituz, gainera, nahi adina gorputz zigor krudel ematen zitzaizkielarik (zigorra, pikota, burni goriekin markak...) heriotz zigor mota anitz barne, gaizkilearen edo gaizkileak egindako delituaren arabekoak (arma ezberdinekin burua moztea, lepoa moztea, urkaketa, sutan erretzea, gorputzadarrak moztea...). Bakarkako askatasuna, poliziak etengabe mehatxatzen zuen, erregearen agindu soil batekin, edonor atxilo zezakeena. Ez zen atxiloketaren arrazoia azaltzen, baizik eta, soilik, "erregearen borondatea hori zela" adierazten zen. Ezer egin aurreko zentsura zegoen, nagusiki elizako autoritateak egiten zuena (nihil obstat ospetsua). Ez zen kontzientzia askatasun edo erlijio askatasunik ematen.

XVIII. mendean, absolutismoaren aldaera bat agertzen da, despotismo onbera deritzona, non, errege absolutu batek, bere boterea, modu paternalistan erabiltzen duen, "guztia herriarentzat, baina herririk gabe" lelopean, baina Estatuaren subirautza mantentzen jarraitzen du, ez da beharrezkoa Konstituziorik, erregearen nahia legea da.

*Pentsamendua, kultura eta artea

Elizaren nagusitasunak, pentsamenduan, heziketan eta kulturaren, berdinezinezkoa izaten jarraitzen du, eta, Erdi Aroan bezala, ordena politiko eta sozialeko justifikaziorik nagusiena, eta ez dago Estatutik banandua. Hala ere, bere paper ideologikoari dagokionez, Humanismotik eta Pizkundetik, Antropozentrismoak Teozentrismoaren lekukoa hartzen du kontepzio kulturaletako konstante bezala. Europa protestanteak toleranteagoa izateko joera izan zuen, baina ez errepresiorik gabea.

Unibertsitatea, Behe Erdi Aroan instituzio indartsu bat eta garatzen ari zena izan zena, eskolastikarekin, abangoardia zientifiko eta kulturaletatik urruntze garai bat jasango du, beste arlo batzuetara pasatzen dena (akademiak, elkarte zientifikoak...) XIX. mendera arte.

Akademizazioak eta profesionalizazioak, artista independizatzen eramango dute, nolabaiteko ospe bohemiorekin, merkatu batetaz fida daitekeena bere ekoizpenerako, enkarguetatik aske, XIX. mendera arte osatzen ez den prozesu batetan.

Erreforma Protestanteak lehenengo, eta, ondoren, Kontraerreforma katolikoak suposatu zuten hauste eta berregituratzearen ondoren, ideologia eta klase nagusien zerbitzura jartzen dira arte lanak.

XVII. mende amaierako europar kontzientziaren krisiaren ondoren, Newtonen paradigmari eta entziklopedismoari jarraitzen dion Zientzia Modernoari bidea irekitzen diona, XVIII. mendean, kultura, Elizaren monopoliaren mantenimendua eta Ilustrazioaren artean kokatzen da.

XIX. mendearen lehen erdian, erromantizismoa garatu zen garaian alegia, aurrerapen zientifikoek izugarriko aldaketak sortarazi zituzten kontzeptuei dagokienez, transformazio-andana eraginez. Balore kulturelek horren sakon eragiten zuten, non fenomeno zientifikoak inolako aurreiritzirik gabe ikertzea oso zaila zen, ezinezkoa ez esateagatik.

Dena den, zientzilariak saiatu egin ziren eta biologiaren arloan esaterako, behaketaren eta esperimentazioaren bide guztiz empirikoen bitartez, eta alde aurretiko edozein filosofia natural alde batera utzirik, abiatu ziren, naturaren ezagutzan sakontzea lortu zutelarik.

Baina zientzien eta pentsaeraren arteko uztardura beti izan da handia eta, ondorioz, ezagutza zientifikoaren leherketa honen aurrean, zein ideia filosofiko zegoen oinarrian? Naturari buruzko ezagutzaren jauzi ikaragarri hau errealitate naturalaren ideia berri eta praktikoa baten emaitza baino ez al zen izan? ala aldaketa sozio-kulturelek izan zuten eraginik horretan? Hasiara batean, ideia erromantikoek entziklopedisten arrazionalismoaren aurka jo zuten. Borroka horren ondorioz Errestaurazioaren oinarri ideologikoa agertu zen. Bestalde, liberalismoak korrante berri hau mugimendu kontrairaultzailea izan zitekeela pentsatu zuen. Baina erromantizismoak aurrera egin ahala, bi korrante hauek, zehaztasun handirik gabeko beste bakar batean elkartu ziren. Ideia erromantikoak, indibidualtasuna eta irrazionaltasuna alegia, areagotu ahala, eta edozein araudiren kontra jotzerakoan, nahi gabe, liberalen tradizioaren kontrako joerarekin bat egin zuten.

Britainiar irlak Europako gainontzeko lurraldeak baino arinago industrializatu ziren. Industrializazio horretan hainbat faktorek izan zuten eragina, baina horien artean aipagarriena honakoa da: Kontinentean teknikaren mundu berria hobetzen eta horren erabilera bultzatzen ari ziren bitartean, Ingalaterrak giza ekintza berri hau aurrera eramateko baldintzak metatzeari, hots, kolonietako merkatua ustiatzeari eta aberastasun gune berriak eraikitzeari ekin zion. Guzti horrekin batera, nekazaritza-faktoreek ekoizpen teknikak eta langileen egoera aldatzen lagundu zuten.

Aldaketa sozioekonomiko, pizkunde tekniko eta honen ondoriozko nekazaritzako aldaketek industriaren garapena ekarri zuten, baita XIX. mendean ezagutu zen hirien garapena ere. Iraultza honen ondorio, nekazari txikien hondamena izan zen: beren lursail txikiak utzi eta hiri handietara jo beste biderik ez zuten izan. Hiri-proletarioen sorrerak garai bateko zibilizazioaren ospe materiala ekarri bazuen ere, horrekin batera, desoreka soziala ere eragin zuen: teknikaren botere ikaragarriarekin batera, atzerapen moral izugarria agertu zen.

XIX. mendeko gizakiak, zientzia eta teknika uztartuz, fenomeno naturalen mekanismoak hobeto ikertzeko aukera izan zuen. Garai horretara arte ezezagunak edo erabiltezinak ziren energi iturri emankorrago batzuk eskuan izan zituen. Erdi Aroan energi iturri hedatuena animalien bidezkoa izan zen, horrekin batera ibaien eta haizearen bidezkoak ere erabili baziren ere. Mende honetan ordea, beroaren eraginez gasek eta lurrinek hedatzeko duten joera dela eta, elementu hauek, haize nahiz ur-korrontek ordezkatuz mugimendu-energiaren iturri artifizial nagusi bihurtu ziren.

XIX. mendearen ezaugarri tekniko nagusia energia menperatzearena izan da; hori dela eta "lurrinaren mende" gisa bataiatu izan da. Horren erabilera, garraioaren arloan batez ere, oso azkar eta errotik aldarazi zuen bizimodua: arlo horretan eta milaka urtez abiadura handiena batezbeste hogeit hamar kilometro orduko izan ondoren, lurrinak asko igo zuen abiadura-muga hori. XIX. mendearen hasieran, tren-makinari buruzko lehen ideiak agertu ziren. Horren garrantziaz berehala ohartu ziren besteak beste meatzariak, beren arloko garraio-arazoak gaintitzen lagunduko zirela.

Britainia Handian oso hedapen azkarra izan zuen trenak: hamazortzi urtetan hamar mila kilometro trenbide eraiki ziren.

Trenarekin batera lurrin-itsasuntziek hartu zuten lehentasuna. 1807an Fulton-ek lurrin itsasuntzien lehenengo zerbitzu erregularra jarri zuen martxan. Hasiera batean, untxiak bultzatzeko alboetan zeramatzen gurpilez baliatzen ziren, baina hobetu nahian egindako lanei esker, laster ikusi ziren helizeen abantailak. Piskanaka beraz, gurpilak helizez ordezkatu ziren. 1838an "Sirius" eta "Great Western"-ek Atlantikoa zeharkatu ahal izan zuten helizeak erabiliz eta bela-beharrik gabe.

Honekin batera, nabigazio-metodo eta tresnak hobetu ziren eta untxigintzaren hobekuntzak era zientifiko batez aurkitutako aurrerakuntzak ezagutu zituen. Guzti horri telegrafoa eta osasun-arloko zenbait aurrerapen gehitu zitzaizkionean nabigazioak izugarritzko bultzada izan zuen.

Energiaren arloari heltzen badiogu berriz, mende horretan oso paper garrantzitsuak jokatu zuten turbina hidraulikoek. Industri iraultza piztu zenean eta energi beharrak areagotu ahala, gurpil hidrauliko zaharren desegokitasuna agerian gelditu zen. Erdi Arotik XVIII. mendearen bukaera arte, gurpil zahar horiek oso aurrerapen eskasa ezagutu zuten.

XIX. mendearen hasieran egindako lanei esker, mende honetan ikusi ahal izan zuen argia turbina hidraulikoak. Laster ikusi zen turbina honen errendimendua oso handia zela; antzinako gurpilea baino askoz handiagoa noski.

Fourneyron-en turbinaren ondoren, 1936an Fontaine-k asmatutakoa eta 1850ean Francis-ena azaldu ziren, turbina termikoak ordezkatzuz; azkeneko hauek, hidraulikoak baino askoz garestiagoak baitziren erabiltzeko. Hori dela eta, ondasun mineral gabeko lurralde batzuetan industriak ipini ahal izan ziren, honek dakartzan ondorio soziologiko eta ekonomiko guztiakin.

Eztanda-motorea 1860an jaio zen, nahiz eta XVIII. mendean antzerako zerbaiten ideia agertu: energi mekanikoa lortzeko zilindro batean bolbora lehertzea. Baina bide hau baztertuta gelditu ondoren, lurrinak hartu zuen nagusitasuna eta zilindro baten barnean askatzen den energiaren erabilera zokoratuta eta ahaztuta gelditu zen. XIX. mendean Street eta Labon injineruek ideia hori bereganatuz, motore berri baten ideia azaldu zuten eta 1860an Lenoir injineruak honelako bat egin ahal izan zuen: elementu tekniko guztiak egokituz hiru zaldi potentziako motorea moldatu zuen. Leherkari bezala aire eta argi gasaren nahastura erabili zuen: airearen eta gasaren sarrera kontrolatuz, barnean geruza fin batzuen segida izanik, makinaren funtzionamendu leuna sortu zuen. Beraz, Lenoir-ek erraz garraia daitekeen energia iturriaren bideari zabaldu zion atea. Laster argi gasak petroliari utzi zion lekua mende honetan ezagutu dugun motore-garapena bideratuz.

Iraultza tekniko honen ondorioak berehala kanporatu ziren. Hasteko distantziak txikiagoak egin ziren, horrek dituen alde on eta txar guztiakin. Merkantzien garraioak dimentsio ikaragarriak hartu zituen. Honekin batera makinagintzarako nahiz zubiak, trenbideak edo tunelak egiteko esaterako, behar ziren kapital izugarriak metatzeko sozietate anonimoak sortu ziren. Siderurgian izandako aurrerapenek, altzairu hutsak lortzeko nahiz burdin mea fosforotsuak erabiltzeko, industrietan burdinaren nagusitasuna ekarri zuten, zura bigarren mailan geldituz.

Mende honetan izandako aldaketa sozial eta ekonomiko guztien oinarrian zeuden aldaketa teknikoaren azaleko azalpen hau amaitzeko, elektrizitatearen erabilera aipatu behar dugu. 1876 Graham Bell-ek telefonoa asmatu zuen. Guzti honi eta itsasazpiko kablei esker, mundu guztia konektaturik gelditu zen. Bestalde, indar hidroeletrikoak argi eta garraio energi iturri bihurtzerakoan, alde aurretik ezagutzen ez zen mundu berri baten jaiotza ekarri zuen. Atal honetan adierazitako aurrerapen tekniko guzti hauek gizartean eta ohituretan aldaketa sakonak sortarazi zituzten, baita arazoan aurrean mentalitate-jarrera berria ere, hau da: *gizarte berria*.

2. Gizarte berria

XIX. mendeko azken hamarraldian zehar izandako ideia politiko eta ekonomiko berrien garapena, konkretuki kapitalismo demokratikoaren eta sozialismoaren tesia, eta zientzietan izandako aurrerakuntzen hedapenaren ondorioz, XX. mendean eragingo zen aldaketa sozial handienaren oinarri teorikoa izango zen: **herriaren parte-hartzea nazioen gobernuan**.

Kapitalismoaren garapena

Mendebaldeko Europako garapen osoa Industria-Iraultzatik aurrera hasi zen, XVIII. mendean, eta momentu gorena hurrengo mendearen erdialdean lortu zen. XIX. mendean, Europako potentzia garrantzitsuenen inperioen hedapenak diru eta lehengaien joan-etorriak erakarri zituen kolonietatik, industriaren hazkundera, eta merkataritzaren eta bankaren garapena bultzatuz.

Funtsean, ekonomia kapitalista hurrengo baldintzetan oinarritzen da:

- Inbertsiorako **ondasunen** erabilgarritasuna.
- **Jabetza pribatua**, produkzio-bitartekoena nahiz diruarena.
- **Merkatu-askatasuna** eta norberaren inizatibarena.

Kapitalismoa laster inposatu zen sistema nagusi bezala Europa eta Amerikako lurralde gehienetan. Baina hasierako kapitalismoan nagusitu ziren desberdintasun sozial larriek teoria ekonomiko

alternatiboak azaltzea eragin zuten **-sozialismoa** kasu-, aberastasunaren banaketa bultzatzeko pentsatuak.

«Masa-gizartea»

Milurtekotan zehar, erregeak, jeneralak eta pentsalariak historiaren protagonistak izan ziren. Frantziako Iraultzaren ondoren agertu ziren **printzipio demokratikoek** inspiratutako gizarte industrial berriak, bere bizitzan eta estatuen gobernuetan eduki berria eman zion biztanleriaren paperari.

«Masa» hitza gizarte baten langileen osotasunari aplikatzen zaio, eta hedaduraz, biztanleriaren osotasunari. Marxek eta Engelsek XIX. mendearen bigarren erdialdean bultzatu zituzten teoria sozialisten kutsua duen hitza izan arren, gaur egun edozein testuinguru politikotan erabiltzen da.

Garapen kapitalistaren lehen urteetan lantegietan umeen erabilera arrunta izan zen.

Masa-gizartearen oinarritzko ezaugarrien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Herriaren **parte-hartzea** nazioa gobernatzeko orduan. Parte-hartze maila oso ezberdina izan daiteke estatu batetik bestera.
- Sindikatuko eta **langileria-mugimendua**.
- **Hobekuntza sozialak**: biztanleriaren ongizatea da Estatuaren xede garrantzitsua.

Demokrazien garapena

Napoleon osteko Berrezarpenaren eta Lehen Mundu Gerraren hasieraren arteko garaiak mendebaldeko munduko estatu nagusietan sistema demokratikoen garapen motel eta etengabekoa ezagutu zuen.

Lehen demokraziek partaidetza txikia izan zuten, **sufragio mugatua** (gizonek bakarrik bozkatzeko zuten) edo **zentsuratzaille** (errenta irizpidetan oinarritutakoa) zutelarik, eta askotan hauteskondeek ez zuten garbi jokatzeko berme gehiegirik.

Pixkanaka demokrazia parlamentarioak partaidetza-maila handiagoak onartu zituen, protesta sozialen eta herriaren aldarrikapenen presioak bultzatuz.

Oinarritzko eskubideak pixkanaka onartuz joan ziren eta klase-pribilegioak ezabatu ziren. Lan-baldintzak, gizarte-segurantza, osasuna, etab. ere hobetu ziren.

Erregimen demokratikoen ezarpena ezberdina izan zen. Lurralde batzuk baino ez zuten nolabaiteko fidagarritasunezko sistemak, esaterako Estatu Batuek, Frantziak edo Erresuma Batuak. Beste Europako estatuak, Espainiak barne, teorikoki partaidetza-sistemak zituzten; baina benetan, sakonki ustelak ziren gobernu-sistematik oinarritzen ziren.

Prentsa

Bizitza publikoan herriaren partaidetzaren ondorioetako bat prentsaren garapena izan zen. Lehen momentutik **hedabideak** lehen mailako tresna politiko bilakatu ziren, iritzi publikoa sortu eta zuzentzeko ahalmen handia baitzuten.

Bere eragin handiaren ondorioz, kazetaritzari "laugarren boterea" deituz hasten da. Lehengo kazetaritza idatzizkoa zen, baina azaltzen ari ziren komunikabide berriak laster bereganatuz joan zen, irratia adibidez.

Ezaugarriak

Estatu forma ez da funtsezkoa bere bereizmenarako, monarkia konstituzionala, monarkia parlamentarioa edo Errepublika izan baitaiteke.

Edozein kasutan, sistema politiko berria bereizten duena, Iraultza Burgesa, Industria Iraultza eta Iraultza Liberala deitu izan den prozesu hirukoitzean, honako hauen mesedetan, aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoan izan duen tresna papera da:

- Klase nagusi berria: burgesia
- Ekoizpen modu nagusi berria: kapitalismoa
- Ideologia nagusi berria: liberalismoa

Askatasuna

Estatu Liberalak, Adam Smith-engandik hasita liberalismo ekonomikoak proposatzen duen arabera, Antzinako Erregimeneko merkantilismoa ez bezala, ekonomian parterik hartzen ez duen estatu minimoa izan nahi du, eta soilik norbanako bakoitzaren askatasunaren erabilera bermatzen duena, adibidez, mugarik gabeko merkatu aske baten eta jabego pribatu mugagabe baten existentzia bermatuz.

Horregatik da hain garrantzitsua bere lehen neurriak desamortizazioa, desbinkulazioa edo gremioen ezabatzea (langile sindikatuak debekatzeko barne hartzen duena) izatea.

Monarkia absolutua ez bezala, bertan erregeak esandakoa legea baita, Estatu Liberala Zuzenbide Estatu bat bezala definitzen da, hots, norbanako bakoitzari, boterearen gehiegikerien mende ez egotearen segurtasun juridikoa ematen zaio. Tortura judiziala bezalako instituzioak desagertu egiten dira. Beste batzuk, berriz, jaio egiten dira, polizia kasu, gaur egun ere existitzen jarraitzen duena, gizartearen aurkako jokoeratzat hartzen diren jokoaren errepresioa baita, sistema politiko edo sozialean barneratu gabeko talde edo pertsonen errepresio politikoa barne.

Berdintasuna

Gizartearentzat nahi den baldintza berdintasunak, pribilegioak eta estamentuak desagertzen direla esan nahi du, aberastasunean oinarrituriko klase banaketa argi bat egon dadin, sufragio zentsitarioaren hauteskunde sisteman onartzen dena. Horretarako, liberalismo doktrinarioa deitutakoak, beharrezko justifikazio ideologikoak aurkituko ditu. Lurralde pribilegio edo foruen ezabaketak, merkatu nazional bateratu batentzako neurri egokidun estatu-nazio bat sortzea ahalbidetzen du, barne aduanarik gabe, eta txanpon, pisu eta neurri sistema eta merkataritza legedia banatzen dituena. Trenak suposatzen zuten garraio bideen iraultza, eraikuntza nazional horrentzako funtsezkoa izan zen, ideologikoki, mugimendu nazionalistek justifikatua dagoena, adibidez, Italia eta Alemaniaren bateraketan bezala, bateraketa nazionalerako beste ezaugarri batzuei ere garrantzia eman diezaiekeena, hizkuntza kasu.

Garrantzitsua da zuzenbidearen arloan honako hauek ezartzen direla: legezotasun printzipioa eta legearen aurrean berdintasuna. Lehenengoak, hiritarren obligazio oro, lege batean ezarrita egon behar duela dio, eta legearen aurrean berdintasunak, estamentuen abolizioan oinarriturik, hiritar guztiak legearen aurrean berdin tratatuak izango direla esan nahi du.

Botere banaketa

Montesquieuren botere banaketa hiritarren askatasunaren erabileraren berme bezala aplikatzen da, aukeraturako Legebiltzar baten, Gobernu baten eta Kode napoleondarrean oinarritutako legediaren printzipioak aplikatzen dituen sistema judicial baten arteko harreman nahiko orekatu bat dagoelarik.

Eliza Katolikoaren egoera Europa hegoaldeko herrialdeetan, okerrera doa bere botere ekonomiko, politiko eta sozialaren galeraren ondorioz (deskristautze prozesu batez hitz egin daiteke, erabateko Eliza-Estatua Banaketa egoera batera iritsiz, Frantzia gertatzen den bezala, edo tarteko eredueta, Espainia kasu, bertan **Konkordato** eredu bat baitago, Estatuak diruz laguntzen du kleroa

XIX. mendeko pentsamenduaren krisia

1. Zer da Antzinako Erregimena? Non, noiz eta nola sortu zen? Noiz amaitu zen?
2. Zeintzuk dira Antzinako Erregimenaren ezaugarriak?
 - A) Ekonomian eta demografian:
 - B) Gizartean:
 - C) Sistema politikoan:
 - D) Pentsamenduan eta kulturaren:
3. Zer da Gizarte Berria? Non, noiz eta nola sortu zen?
4. Zelan garatu zen kapitalismoa?
5. Zer da MASA-GIZARTEA?
6. Zertan oinarritzen da DEMOKRAZIA MODERNOA?
7. Zelan definitzen da SISTEMA POLITIKO BERRIA?

